

GARBIGUNE ZERBITZUKO ARAUDIA

1. art. Helburua

Araudi honen helburua da Garbigune Zerbitzua arautzea, Arrasaten (Ibarreta), Bergaran (San Kristobal) eta Oñatin (Urrutxu) dauden instalazioen bidez emango delarik.

Zerbitzu honen helburua erabiltzaileari erraztasunak ematea da bere hondakinak gaika kendu ahal izateko, horrela horien birziklatzea errazteko eta kontrolik gabeko isurketak eta eragin dezaketen poluzio edo kutsadura saihesteko.

2. art. Erabiltzaileak

Mankomunitate honen 3 Garbiguneak Debagoienekoek (Leintz-Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Oñati, Elgeta eta Antzuolako herritarrek) bakarrik erabil ditzakete. Salbuespen gisa, onar daitezke eskualde honetatik kanpoko erabiltzaileak ere, baina aurrez Ingurumen Zerbitzuaren baimena baldin badute eta Araudi honetan ezarritako baldintza guztiak betetzen badituzte.

Aramaioko (Araba) biztanleek ere erabil dezakete Ibarretako (Arrasate) Garbigunea, Debagoieneko Mankomunitatearen eta Aramaioko Udalaren artean izenpetutako hitzarmena indarrean dagoen bitartean.

3. art. Zerbitzua erabiltzeko prezioak

Zerbitzua doakoa izango da.

4. art. Ordutegia eta egutegia

Garbiguneen funtzionamendu-orduak hauek izango dira:

3. Irailtik uztaile, biak barne:

- Astelehenetik ostiralera: 9:00-12:30 eta 16:00-19:00.
- Larunbatetan: 9:00-13:30.

4. Abuztuan:

- Ibarreta (Arrasate) Garbigunea: Astelehen eta ostegunetan, 9:00-13:30.
- San Kristobal (Bergara) Garbigunea: Astearte eta ostiraletan, 9:00-13:30.
- Urrutxu (Oñati) Garbigune: Asteazken eta larunbatetan, 9:00-13:30.

Garbiguneak itxita egongo dira igande eta jaiegunetan.

Art. 5. Hondakin onargarriak eta nola ekarri

Etxeetako hondakinak, etxeetan lan txikiak egiten dituzten gremioek (igeltseroek, iturginek, etab.ek) sortutakoak, baita dendek, ostatuek eta bulegoek sortutakoak ere, onartuko dira.

Ez dira onartuko industri jatorriko edo lan eta obra handietako hondakinak. Hala ere, industri jardueran sortutako hondakinak onar daitezke Garbiguneetan, aurrez Ingurumen Zerbitzuaren baimena baldin badute, betiere produkzio-prozesuaren edo industri jardueraren ondorio ez badira, hondakin horiek hiri-hondakinen pareko badira eta Araudi honetako gainerako betebeharrak betetzen badira.

Honelako hondakinak onartuko dira:

- Sukaldeko olio erabiliak: ontzi itxietan.
- Motor-olioak: ontzi itxietan. Ez dira onartuko konponketa-lantegi eta antzekoetako olioak. Eta erabiltzaile eta hil bakoitzeko 25 litro onartuko dira gehienez ere.
- Metagailu edo akumuladoreak: bateria agortuak eta metagailuak oro har.
- Aerosol-ontziak beteak edo erdi beteak.
- Inprimagailuen toner-karkasak.
- CD-ak, disketeak, bideo-zintak eta antzekoak.
- Ke-detektagailuak.
- Linea zuriko etxetresna elektrikoak: ikuzgailuak, hozkailuak, etab.
- Linea gris-marroiko etxetresna elektrikoak: telebistak, ordenagailuak, etab.
- Fluoreszenteak: beren ontzikietan. Erabiltzaile eta hil bakoitzeko 100 ale onartuko dira gehienez ere.
- Geldoak: etxeetako lan txikien hondakinak, lurrak, errautsak, kristalak, etab.
- Zur garbia: bilgarriak, taulak eta antzekoak, pinturarik, bernizik, itxiturarik edo elementu arrarorik (plastiko, paper, zabor, etab.ik) gabeak. Ez da onartutako zuhaitz-adarrik, belarrik, sasi eta antzekorik, honelakoak inausketa eta lorezaintzako hondarren gordetegira eraman behar baitira, hau ere Mankomunitateak kudeatua.
- Zur zikina: zurezko altzariak eta zurezko beste elementu batzuk pinturak, bernizak eta antzekoak dituztenak (armairuak, aulkiak, kaxak, oholak, etab.). Altzariak dituzten beira edo kristal guztiak kendu behar dira eta hondakinen edukiontzian utzi.
- Pneumatikoak: motorizatu gabeko ibilgailuen gurpil-azalak (bizikletak, trizikloak eta antzekoak), metalezko zatiak kenduta. Ez da onartuko pneumatikoak eta antzekoak konpondu, saldu edota aldatzeko tokietatik ekarritakorik.
- Metalezko beste gauza batzuk: erradiadoreak, bizikletak, aulkiak, etab.
- Papera eta kartoia: bilgarriak, aldizkariak, karpetak, etab.
- Etxetresna elektriko txikiak: irabiagailuak, txigorgailuak, etab.
- Pestizida eta antzekoak: ontzi itxietan.
- Pilak: mota guztietako pilak.
- Pinturak eta disolbatzaileak: ontzi itxietan.
- Plastikoak: ontziak, botilak, jostailuak, bildukiak eta hondakinak oro har.

- Etxeko garbigarriak eta beste kimiko batzuk: ontzi itxietan.
- Erradiografiak.
- Telefono mugikorrak.
- Termometroak.
- Beira: botilak, poteak, beirazko flaskoak.

6. art. Kopuruak eta mugak

Bolumena 2 m³-ra mugatzen da, eta pisua 750 Kg-tara asteko eta erabiltzaile bakoitzeko.

Eta 3.500 Kg-ko Gehienezko Pisu Baimendua (PMA) duten ibilgailuek bakarrik izango dute Garbigunera sartzeko aukera.

7. art. Erabiltzailearen betebeharrak

Erabiltzaileak:

- Instalazioko zaintzaileak agintzen dion guztia bete beharko du.
- Zerbitzuaren funtzionamendu egokirako zaintzaileak eskatzen dion informazioa eman beharko dio (zer-nolako hondakinak dakartzan, gutxi gorabeherako kopuruak, hondakinaren jatorria, identifikazio-datuak, etab.).
- Material desberdinak gaika edo bereizita utziko ditu, bakoitzari dagokion edukiontzian eta lekuan.
- Hondakinak utzi ondoren, ingurua garbituko du, behar izanez gero.
- Egoki eta mantso-mantso ibiliko da ibilgailuz instalazioaren barruan.

8.art. Arau-haustek

Arau-haustek izango dira ondorengo egiteak eta ez-egiteak:

Arau-hauste oso larriak:

- Onargarriak ez diren hondakinak botatzea.
- Garbiguneen ondoan, baina kanpoaldean, uztea hondakinak, irekita dagoen orduetan nahiz horietatik kanpo.
- Garbiguneetatik hondakinak erretiratzea, zaintzailearen baimenik gabe.
- Bi arau-hauste larri egitea urtebetean.

Arau-hauste larriak:

- Hondakinen izaera, kopuru edo jatorriaz eskatutako informazioa ez ematea.
- Garbiguneko zaintzailearen aginduak eta eskariak ez betetzea.
- Nahitako kalteak egitea instalazioetan.
- Bi arau-hauste arin egitea urtebetean.

Arau-hauste arinak:

- Ez uztea hondakinak dagozkien edukiontzietan edo lekuetan.
- Oro har, ez betetzea Araudi honek ezartzen dituen betebeharrak.

9. art. Zigorrak.

Zigorrak jartzeko aginpide edo eskumena Mankomunitatearena da.

Aurreko artikuluan jasotako arau-hausteetako bakoitza isun batez zigor daiteke; isunaren kopurua ondorengo eskalaren arabera finkatuko da, arau-hausleak gauzak bere onera ekartzeko eta, Mankomunitateko zerbitzu teknikoek balioetsi ondoren, bere arau-hausteak eragindako kalteak ordaintzeko duen obligazioaren kalterik gabe. Arau-hausleak ez baditu gauzak birjarri edo lehengoratzten, betearazte subsidiarioa egingo da arau-hauslearen kontura eta kostura.

- Arau-hauste oso larriak. Garbigune Zerbitzua erabiltzeko debekua edo/eta isuna, 450,01 eta 900,00 €artekoa.
- Arau-hauste larriak. Isuna, 90,01 €eta 450,00 €artekoa.
- Arau-hauste arinak. Ohartarazpena edo/eta isuna, 90,00 €rainokoa.

Zigorrak jartzerakoan kontuan izango da asmo txarrik edo errepikapenik izan den, eta eragindako kalteen izaera.

10. art. Prozedura

Zigortzeko ahalmenaren prozedurak dagokion espedienteari hasiera eman eta gero hori bideratzea eskatuko du, aplikatzekoak diren legezko eta arauzko xedapenetan ezarritakoaren arabera.